

Zaharren egoitzak

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileek bi urte luze daramate borrokan.

Koronabirusaren aurretik oihua garbia eta ozena zen: langileen lan baldintzak hobetzea, egoiliarren bizi baldintzak hobetzeko. Pandemiak dena leherrarazi du oso forma latzean zaharren egoitzetan.

Langileen aldarrikapen horien bueltan sortu zen 2019ko irailean Gipuzkoako Senideak elkarte, egoitzetako erabiltzaileen senideak osatua. Elkarreak helburu nagusi bakarra dauka: egoitzetako bizi baldintzak hobetzea.

Pandemia etorri aurretik dagoeneko egonezina zegoen egoitzetako egoerarekin, bai langileen aldetik eta baita egoiliarren senideen aldetik ere.

Bai, eta pandemiak gehiago azaleratu du lehenagotik ikusten ari ginen egoera eskasa. Egoitzetara egunero joanez gero, segituan antzematen duzu egoera ez dela egokia. Langileak dena ematen ikusten dituzu, ezin iritsi, etengabe itolarri batean. Askotan aipatzen digute ez daukatela denborarik egoiliarrekin tartetxo bat hizketan lasai egoteko, lau kontu esateko. Guk garbi daukagu langileen lan baldintzak hobetu behar direla horrek gure senideen ongizatean eragina izango duelako. Ezinean dabilen langile batek ez dauka denborarik bere lana ondo egiteko.

Lehendik prekarioa zen egunerokoan bete-betea sartu da covid-19a.

Kolpea oso latza izan da. Gure osaba zegoen zentroan birusak oso gogor jo zuen lehen ola-

tuan; berrogei kutsatu inguru, hogeita bost heriotza eta albo kalteak sekulakoak. Azkenean gaixorik zeudenek eta ez zeudenek, denek, tratamendu bera jasotzeko dute: isolamendua. Ulertzen dugu neurriak eta erabakiak hartzea ez dela erraza egoera ezezagun baten aurrean. Baina garbi dago batzuentzat isolamendua zigor latza izan dela: bakartuta, ezin senideak ikusi, ezin ezer egin...

Adinekoen egoitzetan bisitarik ez dute izan denbora luzean.

Ez, denbora oso luzean ezin izan ditugu senideak bisitatu. Gero murrizketa gogorrak izan dira: astean bitan, beti pertsona bera, distantziarekin, maskarekin... Adineko jende askok entzuteko eta ikusteko arazoak ditu. Bi metroko distantziarekin eta musukoarekin elkar ulertzeko modurik ez dago. Ezin komunkatu.

Koronabirusak eramanez dituenak, tristurak makaldu ditu.

Egia da berriz egoitzetara bueltatu garenean beherakada handia sumatu dugula adinekoen artean. Penagarria da fisikoki eta emozionalki nola egin duten behera. Oso egoera latza bizi izan dute egoitzetan. Buruz ondo daudenek eta sentimendu horiek adierazteko gai direnek garbi adierazi diete senideei bisitetan: «Horrela bizitzeko, nik ez dut bizi nahi».

Egoitzetan daude, baina familia eta lagunak kasu askotan egunero joaten dira bisitan. Eta bisitan joaten garenak ez gara gure senideekin bakarrik egoten, gainontzeko egoiliarrekin ere harremana egiten da, sarea osatzen da. Bakarrik dagoen jendeak mesedeak eskatzen dizkizu, hau edo bestea ekartzeko eskatzen dizu... Hor sare

«Beherakada handia sumatu dugu adinekoen artean, asko abandonatuta sentitu dira»

garrantzitsua osatzen da. Eta bat-batean, adineko asko bakarrik, beldurtuta, sarerik gabe eta gertatzen ari zena ezin ulertuta geratu dira. Zahar asko abandonatuta sentitu dira.

Eta langileak nola sumatzen dituzue?

Lur jota, fisikoki eta emozionalki. Oso gogorra da egunero zaintzen dituzun horiek bata bestearen atzetik hiltzen ikustea. Egoitzak itxita zeudenean eta telefonoz deitzen genuenean, askotan galdetzen genien langileei ea zer moduz zeuden. Garbi esaten ziguten: egoiliarrek senideak behar zaituztete eta guk ere behar zaituztegu. Finean, langileak egoiliarren senide ere bihurtu dira tarte horretan, dena beren bizkar hartu dute.

Muturreko egoera horrek berriz ere jarri du mahaiaren gainean gai arantzatsu bat: zer gertatzen da adineko pertsonen eskubideekin?

Bai, badirudi adinekoek ez daukatela beren bizitzarekin zer egin erabakitzeko eskubiderik. Nik askotan pentsatzen dut; gure ama etxean bizi da, autonomia da eta bakarrik moldatzen da zorionez. Bere ahizpa, berriz, adinekoen egoitza batean dago. Gure amak erabaki dezake buelta bat ematea, igerilekura joatea... edozer gauza. Aldiz, bere ahizpak ez. Zergatik? Gure izeba martxoaz geroztik bi aldiz bakarrik aterata da egoitzatik eta horietako batean erietxera joateko,

NEKANE SAENZ DE CABEZON SALABERRIA

GIPUZKOAKO SENIDEAK ELKARTEA

Gipuzkoako zaharren egoitzetako erabiltzaileen senideen elkarte da Gipuzkoako Senideak. Beren senideen ongizatea helburu hartuta sortu zen elkarte, osasun krisiaren aurretik. Pandemiak beharrak beharrago eta zuloak zuloago bihurtu ditu.

Amagoia Mujika Telleria

eroriko bat izan zuelako. Hain-
beste denbora mugitu gabe
egon eta gero, erori egin zen.

Gure osaba, berriz, uztailean
hil zen. Koronabirusa izan zuen,
gainditu egin zuen eta nik uste
dut albo kalteen ondorioz hil ze-
la. Koronabirusa pasatu eta gero
egoera oso latza sufritu zuten
egoitzan, denbora luzea eman
zuten isolatuta. Eserita denbora
asko eman zuen eta sekulako ul-
tzera atera zitzaion ipurtaldean,
ikaragarria. Gero konplikazioak
etorri ziren bata bestearen atze-
tik.... Uztailean hil zen.

**Koronabirusa izan zuenean
egoitzatik erietxera eramán
zuten.**

Bai, eta horrek pixka bat salbatu
zuen neurri handi batean. Eri-
etxean senide baten konpainia
zeukan eta horrek asko lagundu
zion. Behin birusa pasatuta, ez
zuen egoitzara bueltatu nahi,
berriz isolamendua eta bakarda-
dea zituelako zain bertan. Pen-
tsa, egoitzatik egindako bideo
dei baten bitartez konturatu gi-
nen osaba ez zegoela ondo, oso
makal zegoela. Gure kezka adie-
razi genien egoitzako langileei
eta segituan ospitaleratu zuten
berriro.

**Etxeko nagusiak egoitza bate-
an sartzeko erabakia beti ez da
samurra izango.**

Ez, ez da erabaki erraza. Nik eza-
gutzen ditudan kasuetan,
behintzat, behar duten zaintza
ezin da etxean eman eta horre-
gatik jotzen da egoitza batera.
Bertan, profesionalak daude,
prestatutako jendea. Arazoa da
profesional horiek ez dituztela
behar dituzten baliabideak eta
horregatik ari dira borrokan,
haiek eta gu. Adinekoen eskubi-
deak eta ongizatea ziurtatuko
dituen zerbitzu publiko duina
behar dugu, hori da gakoa. Hori
da gure aldarrikapena eta baita



Maialen ANDRES | FOKU

langileena ere. Une honetan
zaintza zerbitzua beste enpresa
batzuei esleitu dago eta enpre-
sen helburua zein da? Ba dirua
egitea.

**Gure jendartearen egoera eta
joera ikusita, adinekoen zain-
tza eta egoitzen egoera lehen
lerroko gaia da. Horien aldeko
apustu garbiagoa egin beharko
litzateke?**

Bai, zalantzarik gabe. Baina ho-
rrelakorik ez da ikusten egoitze-
tan. Egoitzetan «kafea denent-
zat» politika da nagusi, guztiei
jarduera berak jartzen dizkiete
aisialdirako: margotzea, bingoa,
abesbatza... Egoitza guztietan
antzeko jarduerak jartzen dituz-
te. Eta horiek gustuko ez dituz-
tenek? Telebista aurrean pasatu-
ko dute eguna? Sentsazioa
daukagu ez dela kontuan har-

tzen pertsona, norberaren inte-
resak, gogoak, nahiak, gaitasu-
nak... Eskaintza hori egokitu
egin behar litzateke.

**Egiteko asko dago egungo zain-
tza sistema hobetzen.**

Egoitzetako bizi baldintzak ho-
betu nahi ditugu eta horretara-
ko prest gaude edonorekin lan-
kideztan aritzeko. Sindikatuekin
harremanetan gaude, baita pen-
tsiodunen elkarteekin ere. Pan-
demiaren aurretik hasiak ginen
herriz herri joaten, bertako el-
karteekin hitz egin eta hausnar-
tzen. Gure asmoa da bailara ba-
koitzean taldetxoak sortzea
gertutik lan egin ahal izateko
eginkizun honetan: adinekoen
egoitzak hobetzea.

Aldundiarekin ere badugu ha-
rremana. Hasieran harrera bero-
agoa izan zen, gero hoztu eta

tenkatu egin zen harreman ho-
ri –asteartero Aldundiaren pare-
an bilkura egiten dugu–. Guk,
Gipuzkoako Senideak elkarteak,
Gipuzkoako Aldundiari eskatu
behar dizkiogu kontuak; Aldun-
dia da familioi zerbitzua eman
behar diguna. Eta Aldundia da,
era berean, kontratatu dituen
enpresa horiek estutu behar di-
tuen. Aldundiak zorrotz jarri
behar du egoitzetako adinekoen
zaintzarekin, haien ongizatea
bermatu behar baitu.

**Azkenaldian harremana hobe-
tu egin da Gipuzkoako Aldun-
diarekin.**

Hainbat bilera izan ditugu Al-
dundiko Gizarte Zerbitzuetako
arduradunekin azken asteotan.
Koronabirusaren eraginaren in-
guruan ikerketa bat egin dute
eta horren berri emateko elkar-

tzen ari gara. Gu, printzipioz,
pozik gaude, ikerketa horrek as-
paldidanik egiten ditugun eska-
kizun batzuk jasotzen dituela-
ko. Badirudi epe motzean,
ertainean eta luzean sistema
hobetzeko aldaketa batzuk pro-
posatzen ari direla eta zaharren
egoitzetako eredua bera berriz
planteatzen ari direla. Itxarope-
na badaukagu, ea paperean jaso
dutenak zer nolako isla duen
errealitatean. Gertutik jarraitu-
ko dugu.

**Langileen lan baldintzen ingu-
ruko korapiloa askatzea ga-
rrantzitsua izango da.**

Bai, zalantzarik gabe lehentasu-
netako bat hori da, langileen
egoera. Guretzat oso garrantzi-
tsua da langileen kondizioak
hobetzea, horrek ongizatea eka-
rriko dielako gure senideei.



*«Guk, senideok,
Aldundiari eskatu
behar dizkiogu
kontuak, Aldundia
da familioi
zerbitzua eman
behar diguna. Eta
Aldundia da, era
berean, kontratatu
dituen enpresa
horiek estutu behar
dituena»*